

ataria

**Mozorroarekin
edo gabe, korrika**

2018-12-21
979. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus





harpidedun izateak badu saria saridunak

1 BILBOKO ARTE EDERRETAKO MUSEOA

Bi lagunentzako bina sarrera

www.museobilbao.com/eu
BILBO

Sarrerak Atariako bulegoan jaso behar dira.

- Arantxa Tolosa (Tolosa)
- Izaskun Garmendia (Tolosa)

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

2 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi lagunentzako bina sarrera

- Nerea Zabalo (Ibarra)
- Sagrario Sorondo (Irura)



Añoeta pasealekua, 24 – DONOSTIA

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Tel.: 943-46 44 04 www.eltxuri.com

3 SEGORE ETXE BERRI JATETXEA-LANDAETXEA

Bi lagunentzako otordua

www.segore.com

Mota guztietako ospakizunetarako;
ezkontzak, familia bazkariak...

943-58 09 76 – 610 460 751

Santa Maria auzoa – ALBIZTUR



- Maite Zubeldia (Alegia)

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko eta aurrez deitu behar da jatetxera.



saridunak

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Musua'

Abenduak 22, Ordiziako Majori kiroldegian.

16:30ean:

- Joxe Mari Amundarain (Tolosa)
- Begoña Altuna (Lizartza)

19:00etan:

- Josu Garmendia (Zizurkil)
- Marijo Belauntzan (Berrobi)

Urruñako ikastolak eta Ziburuko kolegioak, Goleirriko
ikastolen laguntzarekin antolatua, Urruñako ikastola eta
Ziburuko Piarres Larzabal kolegioaren alde.

Ataria jarriko da harremanetan



Tolosako Babarruna GOZA ITZAZU



www.tolosakobabarruna.eus

Tel.: 943 65 02 53

Topa

Whatsapp audio gutxiago eta kafe-lagun gehiago. Horixe da burura etorri zaion lehenengo gauza amonak hilabete bakoitzeko desio bat eskatzeko esan dionean. Familiartekoak bere etxean bildu dira, urtero legez Gabonetan elkartasun-gupida ekimenak goresteko.

Askotan, tokiz kanpo sentitzen da Urtezahar gauean.

Gaua iritsi baino lehen, are. Eguberrietako kantu alaiak hastearekin batera erretzen zaizkio barrenak, eta irribarre faltsu eta poz jario demasak sutzen dute. Baina, batek daki zergatik, tarteka, gorrotagarri zaizkion egun horietan pozoia edabe bihurtu eta magiaren bueltan hasten da dantzan. Kontsumismoaren gaitzak jota dagoela badaki, baina pozik joan da amonarenera, bere tokia ez den hori kontraesanez betetzera.

Afaldu bitartean, zerbaiten esperoan dago: urte berriaren zain, esperantzak eta ilusioak gogoan. «Urtea ondo hasteko, hilabete bakoitzeko desio bana eskatu ezazu», esan dio amonak irribarrez. Hamabi hilabete, hamabi mahats eta ha-



IZARNE OLANO
KALAKARIA

mabi desio. Ez dira gutxi, baina pentsakor jarri da. Fededun izan edo ez, Gabonetako errituari eutsi dio, betiko prozesu zaharkituan arnasberrituta bizirik irauteko.

Lehenengo mahatsa adiskideei: ingurukoei denbora oparitu nahi die, aspaldi egon gabekoari kafe bat eskaini eta urruti dagoenari telefono deia egin. Bigarren mahatsa euskarari. Euskaraldiaren esperientziarekin urte osoan zehar jarraitu nahi du, ohiturak aldatzeko esfortzuak

erraitan sartzeraino. Egin dezatela gauza bera ingurukoek ere. Hirugarrena bidaiei: nori ez zaio bidaia zea gustatzen? Suitzako alpeak edo Filipinetako hondartzak bisitatu lituzke. Behin amesten hasita, mundu osoa zeharkatu nahi luke.

Laugarrena, osasunari agian. Edota udal gobernu aldaketari. Erretzeari uztea hobe? Soldata igoera, loteria irabaztea... Josten ikastea bestela? Zorionik handiena poz txikiek ematen diete urtean zehar, baina gau horretan desio potoloak besterik ez zaizkio bururatzen. Mundua ere hartuko luke eskuan sartuko balitzaio, eta maha-

tsak ahoan nola trabatu zaizkio desioak eta helburuak. Badaki zein lukeen desiorik hoberena gau horretarako: Gabon-edabearren mozkorra pasatzea.

Amonari ez duela halakorik egingo esango lioke. Ez da goela zoriontsu izateko formula magikorik. «Eguna ospatu bagenu gauero, ez genuke urterik ospatu beharko Urtezaharreno», pentsatu du hamabigarren mahatsa jaten ari zirenean. Baina isilik geratu da eta topa egin dute, urte hobe baten alde.

Lehenengo mahatsa adiskideei: ingurukoei denbora oparitu nahi die, aspaldi egon gabekoari kafe bat eskaini eta urruti dagoenari telefono deia egin

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeca Calvo
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojarre

Tolosaldeko gizarte eragileak



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Imanol Garcia Landa



Burdina taldeko kideak aritu dira azkeneko urtebetean Amasako karobiak berreskuratzen. Irudian, taldeko kideak Musturiazpiko karobian. J.M.

04

Ezagutarazi eta mantendu

Villabonako Udalak lankidetza hitzarmena sinatu du Burdina taldearekin, Amasan dauden karobiak berreskuratzeko

Jon Miranda

Amasako Musturiazpi, Floreaga eta Mikeliartza baserrietako karobiak berreskuratzen aritu da azkeneko urtebetean Burdina taldea, Amasa-Villabonako Udalarekin sinatutako

hitzarmenaren bitartez. Garbiketa eta zaharberitze lana egin dute Aranerrakako bidean aurkitzen diren karobietan. Burdina taldeko kide den Ander Otañok azaldu du: «Jende asko ibiltzen da hemen korrika edo paseatzen eta gure helburua izan da herritarrei ikusaraztea non dauden karobiak».

Horretarako, sasiak garbitu eta belarrak kenduta, karobiaren fatxadak txukundu dituzte eta harri berriak jarri dituzte, «labea bera ikusgarriagoa

egiteko». Ez dira Burdina taldekoak hutsetik abiatu, ordea. 1994an, Aranzadi zientzia elkarteak egindako lana aitortu du Otañok eta haiek jasotako dokumentazioa oinarri gisa hartu dutela aipatu du: «Guk orain osatu egin dugu haiek egindako lana».

Maite Izagirre alkateak aipatu du ez dela lehen aldia Amasako karobiak konpontzen direla, baina hori bai, lehen urtea da, Burdina taldearekin hitzarmen bat sinatzen dela. «Ez baka-

 **tolosaldeko
ataria**

 **ataria
irratia**

 **ataria
internet**

 **ataria
prentsa**

Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

rrik karobiak berreskuratzeko, lankidetza hitzarmena sinatu dugu, urtean zehar ere karobi hauek mantendu ditzatzen».

Dibulgazioa helburu

Amasa-Villabonako Udalaren helburua belaunaldi berriei karobien berri ematea da. Izagirrek azaldu duenez, «baserriek labe hauek erabiltzen zituzten, kareharria eta egurra erretzen zituzten, gero kare bizia lortzeko. Horrekin, lurrak ongarritu, baserriak margotu eta ukuiluak garbitzen zituzten». Ondare historiko hori galtzea «penagarria» dela uste dute udal ordezkariak eta horregatik jarri ziren harremanetan Burdina taldeko kideekin. «Ondare historiko honek gure herri identitatea indartzen du, belaunaldiz belaunaldi iraganarekin lotura bat sortuz».

Eneko Urdangarin zinegotziaren ustez, ondare material honen berreskurapenak aurrerapausoa eman du Burdina taldearekin sinatutako akordioarekin. «Atontze lanak burutu dira aurten eta 2019ra begira hainbat panel informatibo ipiniko dira labe hauen historia bilduz eta bertan egiten zen kare biziak zituen erabilerak azalduz. Amasak Villabonarekin bat egin zuela 400 urte betetzen dira, gainera, datoren urtean».

Jarriko diren panelak baliatuz ibilbide bat prestatuko du Amasa-Villabonako Udalak, Izagirrek azpimarratu duenez. Bidea Amasako plazan abiatuko da eta Aranzabitik barrena, Musturiazpi, Floreaga eta Mikeliartzza baserrietatik pasako da. «Aranarreka bideari balioa eman nahi diogu». Gainera, panel hauek jartzeaz gain, esku orri informatibo bat publikatuko du udalak. «Aurrera begira, bisita gidatuak egiteko asmoa dugu, jendeari ondare hau ikusarazteko. Askotan pasatzen gara hemendik eta oharkabean joaten zaizkigu, gure aurrekoek erabiltzen zituzten labe hauek», esan du Izagirrek.



Iaz, 100 lasterketari baino gehiago izan ziren Asteasuko Kros Solidarioan. IRATI SAIZAR

Kros Solidarioa egingo dute igandean Asteasun

Laugarren aldia da El Salvadorreko Segundo Montes komunitateari laguntzeko lasterketa antolatzen dutela

J.M.

Igandeko kroserako izen emateak, 11:00etatik 11:30era egin ahal izango dira irteera puntuan, Asteasuko kultur etxe aurrean. Umeek euro batean egin ahal izango dute izen ematea eta 5 euroan helduek. Bildutako diru guztia El Salvadorreko Segundo Montesera bideratuko da. Komunitate horrekin senidetuta dago Aiztondo bailara, eta iaz esate baterako, 1.200 euro baino gehiago bildu ziren hango proiektuak laguntzeko.

Ateratzen lehenak 2009an eta ondorengo urteetan jaiotakoak izango dira. 500 metroko itzulia eman beharko diote zirkuituari. 11:40ean, berriz, 2005 eta 2008 urteen artean jaiotakoek bi kilometroko ibilbidea egin beharko dute eta bost minutu beranduago abiatuko da itzuli solidarioa. Ez da lasterka izango, oinez edo kalejiran egin beharko da itzulia, bakoitzak nahi duen modura. Gero, 12:00etan abiatuko da lasterketa nagusia. Kadeteek lau kilometro egin beharko dituzte korrika eta juvenil eta seniorrek, berriz, sei kilometro.

Iaz ehun parte hartzailetik gora izan zen Kros Solidarioan, eta aurten ere, irabazle eta partaideentzat hamaiketako eta sariak egongo dira.

EGUBERRIAK ASTEASUN

ABENDUAK 24, ASTELEHENA

12:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera frontoian.

ABENDUAK 26, ASTEAZKENA

17:00. Ikus-entzunezkoen aretoan antzerkia, *Beldartxo Jatuna*.

ABENDUAK 27, OSTEGUNA

16:30. Ikus-entzunezkoen aretoan, *Marco Macaco* filmaren proiektzioa, adin guztientzat.

Ondoren. Guraso Elkarteak merienda banatuko du.

21:00. Ikus-entzunezkoen aretoan: *Handia* filmaren proiektzioa.

ABENDUAK 28 ETA 29

Arratsaldeak. Gazteleku zerbitzua.

ABENDUAK 31, ASTELEHENA

17:00. Herri Kirolak. Harri-jasotze, ingude eta aizkolari txapelketak.

URTARRILAK 2, ASTEAZKENA

16:00. Kultur etxean, jolas kooperatiboen tailerra.

18:00. Guraso Elkarteak merienda banatuko du.

18:30. Ikus-entzunezkoen aretoan, *T.S. Spiveten bidai harrigarria* filma.

URTARRILAK 3, OSTEGUNA

19:00. Ikus-entzunezkoen aretoan, bailarako udal ordezkariak El Salvadorreko Meanguera eskualdera egindako bidaiaren inguruko hitzaldia.

URTARRILAK 4, OSTIRALA

15:30. Haur eta helduentzat esku pilota eta pala txapelketako finalak.

URTARRILAK 5, LARUNBATA

19:00. Errege magoen desfilea.



Leitza-Tolosa etorbidetik eskolara doan errepidea epe laburrean konponduko dute. IRATI SAIZAR

Aurrekontua hizpide, batzarrean

2019ko aurrekonturako, proiektu «txikiak baina sakonduta» aurreikusi ditu Berastegiko Udalak

Irati Saizar Artola

Atzo iluntzean egindako herri batzarrean aurkeztu zuen udal taldeak datorren urtera begirako aurrekontua. Azaroko azkeneko ohiko batzarrean aho batez onartu zuten EH

Bilduk egindako proposamena, eta bere argitalpenak eduki ondoren, eta hilabete jendearen aurrean egon ondoren, abendu bukaeran emango zaio behin betiko onarpena. Amaia Azkue Berastegiko alkateak azaldu duenez, osatu duten aurrekontuan ez dute proiektu «potolorik» sartu. Guztira, 1.091.650 eurokoa onartu dute, iaz baino 120 mila euro baxuagoa.

Hurrengo urtera begira, gauza txikiak dituzte esku artean, «txikiak, bai-

na gehiago sakonduta». Besteak beste, errepideen konponketa lanak, Artalekuko lurren azterketa, larre komunen proiektua eta komunikazio plana.

Puntuz puntu

Asfaltatze lanak egiteko asmoa dute herriguneko bi eremutan: «Alde bate-tik, Izotzalde auzoan 300-400 metroko bide bat daukagu, etxebizitzak dau-den eremu bat da eta negurako eta bestela ere, gunehiko arriskutsua da». Beste eremua herri sarreran dago, Leitza eta Tolosa batzen dituen errepidetik eskolara doan bidea da berri-tu nahi dutena. Lan hauetarako 25 mila euro jarri dituzte, eta epe motzera hasteko asmoa agertu dute. «Urtarrile-an hasiko direla hitz eman digute», ze-haztu du Azkuek.

Azken urteak herrigunetik kanpo geratzen diren errepideak, baserri bi-

1.091.650 euroko aurrekontua onartu dute datorren urterako, iaz baino 120 mila euro baxuagoa

Mediku kontsulta zaharreko parte hartze prozesuan, gimnasioa eta erabilera anitzeko gela egitea atera da

deak, konpontzen daramatzate, eta lan horiekin jarraituko dute datorren urtean ere; 23 mila euro aurreikusi dituzte. «Egia esan, herritarrek eskertu egiten dute. Izan ere, kasu gehienetan ustiapen guneak daude, eta horietarako foru aldundiaren laguntza jaso ohi dugu. Laguntzaz gain, udalak bere aurrekontu propiotik ere jarri izan du eta horretan jarraitzeko asmoa daukagu».

Irisgarritasunak duen garrantziaz ohartuta, espaloietako lanek jarraipena izango dute: «Herrian daukagun irisgarritasun plan horretan, espaloiak berritzen ari gara, eta hutsuneak dauden guneetan espaloien loturak egingo ditugu. Oinezkoen segurtasuna bermatu nahi dugu».

Beste puntuetako bat, Aintzerga auzoan dagoen Artaleku eremuko lurren azterketa da. Herriko Plan Orokorra osatu zutenean industriagune izaera ematen saiatu ziren eremu horri, etorkizun batean, industria garapena aurrera eramateko gunehiko bilaka zedin. Momentu hartan, ezezkoka jaso zuten, izan ere, lur kutsatu bezala izendatuta

zegoen. «Gure interesa lur hori egoki jartzea da eta diru laguntzak eskatu ditugu Eusko Jaurlaritzara, lurraren azterketa bat egiteko». Ez baitakite zenbateko eremua dagoen kutsatuta. «Ikusten genuen egin beharra zegoela, beti utzi eta utzi ari ginen, eta hortik hastea egokiena zela pentsatu genuen».

Bestalde, komunikazio plan bat egitea aurreikusi dute datorren urterako. Batez ere turismoari begira, herrian zer daukaten jakin nahi dute, eskaintzeko dutenaz jabetzea da helburua. «Horrekin batera, hezkuntza plana sartu nahi genuen, zer nahiko genukeen Berastegitik pasatzen diren ikasleek Berastegiri buruz jakitea».

Parte hartzearen emaitzak

Aurrekontuaz gain, atzo jakinarazi zieten herritarrei azaroan egindako parte hartze prozesuaren emaitza. Mediku kontsulta zaharreko eraikinean aterpetxea eraiki edo gimnasio eta erabilera anitzeko gelak egin, horiek ziren aukerak. Bada, bigarren aukera izan da boto gehien jaso dituen, zehazki, 257 bozkarekin. Aterpetxeak, 153 boto jaso ditu, eta 6 lagunek bozkatu dute zurian.

Azkue «pozik» agertu da jendearen parte hartzearekin: «901 pertsona zeuden deituta, eta guretzat oso-oso pozgarria izan dena da %47ak hartu duela parte». Datorren urtean zehar landuko dute proiektua; diru laguntza ezberdinetara aurkeztuko dute, eta erabilera anitzeko geletarako aukerak aztertuko dituzte. Horrela, 2020ko aurrekontuan sartzeko moduan izango direla ikusten du Azkuek.



ISTORIO ETA ILUSTRAZIO HANDIAK, TXIKIENENTZAT

Altzoko Handia protagonista den eta Koldo Izagirrek idatzitako, eta Karmele Gorroño eta Irene Irureta sortzaileek ilustratutako bi libururen aurkezpena egin zuten atzo, Al-tzon. *Altzoko Handia eta Kutixiren gezurrak* eta *Altzoko Handia eta Kutixiren pianoa* izenburuekin argitaratu dituzte eta Izagirre aritu zen ipuinak elkarbanatzen. I. GARCIA

Preso eta iheslariei elkartasuna, Gabonetan

07

Erredakzioa

Abenduaren 24ean, egunak dituen 24 ordutatik 24 minutu preso eta iheslariei elkartasuna adierazteko gonbidapena luzatu du Tolosako Sarek.

Horretarako, 18:45ean Triangulotik abiatuko den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu dute. Manifestazioko momentu batean, Zumalakarre-

gi kalean, mugikorraren argiak piztuko dituzte, «hain beharrezkoa dugun bakegintza eta elkarbizitzaren bidean argia eman nahi dugula adierazteko».

Izan ere, data hauetan bereziki gogoratu nahi dituzte ehundaka kilometrotara daudenak. «Bakarrrik ez ditugula utziko ozen esango diegu; gatazka armatuarekin, armagabetzearekin eta ETaren disoluzioa eman ondoren, orain presoena garaia izan behar da».

Hilberriak eta urteurrenak

atariaⁿ jarrita
Goierriko eta Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Joxe Agirre Iratzoki

Herenegun hil zen 86 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren
Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-



Emaztea: Bibiana Dorronsoro Otermin; seme-alabak: Arantzazu, Josune, Belen, Lorea, Unai eta Leticia, Eneko; bilobak: Aritz, Amaia, Asier, Manex, Aiert, Araitx, Intza, Maddi; eta gainerako ahaideak.

Familiak, otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta BIHAR LARUNBATA arratsaldeko SEIETAN LOINAZTAR MARTIN DEUNAREN Parroki Elizan, egingo den hileta-elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldeaz aurretik.



Behar Zana Pilota Elkarteko pilotariek Amezketan jokatuko dute igandean. ATARIA

Etxean Pebet eta Amezketan nazio mailakoa

08

Behar Zana Elkartea Villabonan eta Larrunarrin egongo da asteburuan, antolatzaile eta parte hartzaile bezala

Erredakzioa

Exposito eta Alduntzin 21-14 galtzen joan ziren pasa den larunbatean Santxo-Bergera bikotearen aurka eta zeruko izar guztiak elkartu zirenez, Bergeraren eskua mindu zenez eta Santxok partida amaitzen jakin ez zenez, 21-22 irabazi zuten Exposito eta Alduntzinek. Expositok, ordea, ez du jokatu dagokion finalerdia, badirudi beste txapelketa batean hitza emana zuela hilabeteak lehenago eta ezingo da Villabonan egon. Bere ordezkoa baina, ez da edozein izango. Eta Antton Pebet txapelketako antolatzaileak pozarren daude.

Larunbatean DV Txapelketa ospetsuan finala jokatu duen eta egun aurrelarien artean joko punturik onenean dagoen Ioritz Egiguren tolosarrak jokatu du Alduntzinekin.

Beraien aurkariak Apezetxea goi-

zuetarra eta Murgiondo azpeitiarra izango dira. Villabonako Santio Txapelketa irabazi ostean Antton Pebeten finalerdietarako sailkatu ziren Peru Labaka eta Elizegi asteasuarra 22-9 xahutu ondoren. Atzean zein aurrean gehiago izan ziren Ilunpe taldeko pilotariak. Tanto ikusgarriak egin zituen Apezetxeak eta Murgiondo nagusi izan zen atzean. Elizegi etorkizun handiko pilotaria dela erakusten ari da baina Murgiondo bezalako harri gogorren aurka gehiagotan aritzeak ez dio kalterik egingo. Peru Labakak bere aldetik eskua ez zuen bere onenean eta ez zuen egunik onena izan.

Jokatu zen beste final-laurdenekoan Xabi Urbieta eta Urruzolak ongi irabazi zuten Maiz eta Aranalde (Aldaberen ordeztu zituen) oriotarraren aurka. 22-11 izan zen azken emaitza baina hasieratik ikusi zen Maiz Behar Zana pilotariak eta Aranaldek aukera gutxi izango zituztela. Urbieta izan zen partidako izarra. Tantoak erraz bukatu zituen, golpez fresko ikusi zen eta defentsan fin. Urruzolak berea fin egin zuen. Dena den, gehiago estutu behar-

ko dute beraien jokoa Salaberria eta Balerdi bikote gaztearen aurka.

Hauek Albizturgo Eneko Labaka eta Telletxea gainditu zituzten 22-14. Salaberriak pilota harrapatu ahala amaitu zuen. Inspiratua, txispaz, pilota gosez dago goizuetarra. Atzean berriz Balerdi du, azken garaian gorakada handia eman duen atzelari sendoa. Indartsua da oso Balerdi, boleaz, defentsatik erasora pasatzeko gaitasuna duena.

Beraz, bi finalerdi ikusgarri izango dira igandean Villabonan 11:00etan hasita: Urbieta-Urruzola eta Salaberria-Balerdiren artekoa eta Egiguren-Alduntzin eta Apezetxea-Murgiondo-ren artekoa. Hotzari aurre egiteko antolakuntzak berogailuak jarriko ditu Bearzana pilotalekuan.

Behar Zana etzi, Amezketan

Euskal Herriko Pilota Elkarteen Arteko Nazio Mailako Txapelketaren jardunaldi berria jokatu du da igandean Amezketan, 17:00etan hasita. Villabonako Behar Zana Pilota Elkartek Bergararen aurka jokatu du. 1946ean sortutako kluba da eskualdekoa, pilotari asko emandakoa, hasiera batean puntistak gehienak. Askok hazten ari den elkartea, momentu honetan 140 jokalaria ditu, gehienak eskuz jokatzen dutenak bai ezker paretan eta baita trinketeen ere. Baditu joko-garbi eta erreboteko taldeak eta, baita palaz jokatzen duen neska talde sendoa ere. Bere oraingo pilotari ezagunenak: Maiz, Jon Urbieta, Lizaso, Esnaola, eta abar dira.

Aurkaria Bergarako elkartea izango da, Mikel Gallastegik zuzendua. Egun, 30 bat federatu ditu, ia denak bertako pilota eskolatik ateratakoak. Aitor Oregi, Gorka Irizar eta Julen Aranburuk eramaten dituzte orain eskolako taldeak. Elkartea hau Gipuzkoako Herri Arteko txapeladuna izana da eta etorkizun handia du bertako eskolan dabilzun 130 haurrekin. Nazio mailako txapelketa honetako talderik gazteena da, Ander Etxaniz, Murua, Muguruza eta Gartziak osatua.

Arratsalde eder bat pasatzeko aukera, bi Gipuzkoako elkarteren arteko kanporaketa estu bat ikusiaz, Amezketa Larrunarrin izango da, etzi.

TALDE NAGUSIAK

Zierbena

LAUBURU IBARRA

Areto futbola. Bigarren B Maila.
Larunbatean, 12:00etan,
Zierbenako kiroldegian.

Alzira

LASKORAIN IKASTOLA

Areto futbola. Bigarren B Maila.
Larunbatean, 17:00etan,
Alzirako kiroldegian.

Eskoriatza

LAUBURU IBARRA

Areto futbola. Gipuzkoako Kopa.
Ostiralean, 21:00etan,
Eskoriatzako kiroldegian.

TOLOBOLEI BIDE BIDE

Ibararte

Boleibola. Bigarren Maila.
Larunbatean, 16:30ean, Tolosako
Uzturpe kiroldegian.

TOLOSA CF

Aurrera De Vitoria

Futbola. Mutilak. Euskal Liga.
Larunbatean, 15:30ean, Usabal
kiroldegian.

TOLOSA CF

Allerru

Futbola. Mutilak. Erregional
Ohorezko Maila. Larunbatean,
16:30ean, Tolosako Berazubi
futbol zelaian.

BILLABONA KE

Urnieta

Futbola. Mutilak. Erregional
Preferentea. Igandea, 16:30ean,

Villabonako Arratzain futbol zelaian
jokatuko da partida.

TOLOSA CF 'B'

Touring

Futbola. Mutilak. Erregional
Preferentea. Igandean,
11:30ean, Tolosako
Usabal kiroldegian.

INTXURRE KKE

Kostkas

Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala.
Larunbata, 16:00etan, Alegiako Elorri
futbol zelaian.

DANENA KE

Asoleus

Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala.
Igandean, 17:00etan, Zizurkilgo
Elbarrena futbol zelaian
jokatuko da partida.

Goierrri Gorrio

INTXURRE KKE

Futbola. Neskak. Emakumeen
Gorengo Maila. Igandean, 12:00etan,
Lazkaoko Arizti Handin.

TOLOSA CF

Eibar

Eskubaloia. Lehen Nazional Maila.
Larunbatean, 18:30ean, Tolosako
Usabalen.

TAKE REDLINE MEKANIKA

Disdira

Saskibaloia. Mutilak. Lehen Maila.
Igandea, 11:20ean, Usabalen.

Oiarso

TAKE

Saskibaloia. Neskak. Gipuzkoako
Seniorrak. Larunbata, 20:00etan,
Oreretako Don Boscon.

LARUNBATA ABENDUAK 22

ASTEASU

USARRABI PILOTALEKUA

22:00. Euskal Herriko Harri Handien
Txapelketa: Jon Unanue 'Goenatxo III',
Iban Ugartemendi, Imanol Illarramendi
'Kortaberri', Jokin Elizmendi, Aimar
Galarraga eta Julen Diaz.

IGANDEA ABENDUAK 23

AMASA-VILLABONA

BEARZANA PILOTALEKUA

11:00. VII. Pebeten Oroimenezko
Txapelketa. Finalerdiak:
– Urbietia-Urruzola/Salaberria-Balerdi.
– Egiguren-Alduntzin/
Apezetxea-Murgiondo.

AMEZKETA

LARRUNARRI PILOTALEKUA

17:00. Euskal Herriko Pilota Elkarteen
Arteko Txapelketa. Behar Zana eta
Bergararen arteko kanporaketa.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

17:00. Migel Soroa-Ogi Berri Pilota
Txapelketa:
– Jubenilak: Gutierrez-Etxeberria/
De La Fuente/Agirre.
– Eliteak: Exposito-Otaduy/
Lerena-Zezeaga.



Nafarroa etorb. 13 behea • TOLOSA
670 41 79 22 • Tel./Faxa: 943 65 0313

 **BILLABONA
FUTBOL
KIROL ELKARTEA**
ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata, 22 • 11:00
Infantil 1. maila
BILLABONA FKE - OSTADAR S.K.T.

Larunbata, 22 • 16:30
Ohorezko Jubenil maila
BILLABONA FKE - ORDIZIA K.E.

Igandea, 23 • 16:30
Preferente maila
BILLABONA FKE - URNIETA K.E.

Euskara behar dela eta ez dela

Pasa da Euskaraldia. Ondorengo baloraziorik ez da falta izan, eta anekdotak anekdota, bat nator bere arrakasta nabarmentzearekin. Errekonozimendu eta zorionik jaso dute bultzatzaile eta parte hartzaile guztiek. Merzitakoak zalantza izpirik gabe.

Izan dira noski kanpainan parte hartu ez dutenak ere; Maialen Arzallusek abestu ere egin zien doinu arrotz bezain ezagun hartan «... Euskaraldia hasi da, denontzat ez baina, ...». Horientzat ere baliagarria izan dela esango nuke, tarteren batean behintzat batzuk isilik mantentzeko balio izan duelako.

Horietako bat Maite Esporin, PSN-ko zinegotzia Iruñeko Udalean. Hauxe

bere aurreko marmarra: «Euskara hizkuntza eskakizuna ezarri du Iruñeko Udalak hainbat lanpostutan, eta ez dago justifikatua inolaz ere. Esan, adibidez, zertarako behar duen al baitari batek euskara... Hobeto ulertuko diote animaliek?».

Hauxe da maila. Eta bati baino gehiago taxuzko arrazoiak irudituko zaio gainera. Zinegotziak oraindik ez daki al baitariaren bezeroak, berez, ez direla animaliak, animalia horien jabeak baizik. Mekanikari baten bezeroak kotxeak ez diren bezala. Hitzunak alegia, eta ez lau hankakoak.

Aspaldikoa da zenbait lanetarako euskara eskatzea eta lanerako eskubideak eztabaidarako gai bihurtzeko joera. Gehienetan, eztabaida erabat interesatua. Politikoki interesatua esan nahi dut. Lanpostu publikoetarako euskararen titulazioaz ari ginela, gogoan dut elkarriketa bat gure herrikide batekin. Pertsona honek senitarteko bat zuen lanerako deialdi batean euskara azterketa pasa ez zuena; sistemaren murrak azaleratu nahian, sutsu agertzen zen azterketa moduaren aurka; eta ez zuen euskarazko azterketa onartzen, ezta beren ikaste prozesu osoa euskara hutsean eman zutenentzat ere.

Baina oposizio publikorako ez da aski ikasketa batzuk (edo titulua) egin izana. Ezta titulua ere. Gai batzuk menderatzen direla frogatu beharra dago, beste hautagaiekin lehiaketan. Eta hori neurtzeko, hauxe aukerako beste sistema: euskararen maila frogatzeko azterketa egin ordez, galdetegi osoa (gaien azalpena, lan praktikoa, elkarriketak, etab.) bi hizkuntza ofizialetan egina-raztea. Erdia eta erdia. Ahoz zein idatziz. Derri gorrez.

Eta behin azterketa gaindituta eta zerbitzu publikorako balekotzat emanda, zerbitzu hori herritarraren aukerako hizkuntzan eman ere. Bestelakora ere ohitu xamarra gaude. Irudipena daukat funtzio publikoetarako

postuetan, euskarari dagokionean, sarrerako gaitasunean baino jarreretan dugula ajea. Eta hor zerbitzari publikoaren gogoaz ezin da herritarraren aurretik jarri. Herritarrak aukeratu behar du komunikazio hizkuntza. Eta herri langileak, horretan erantzun.

Aspaldi gaude hauteskunde kanpainan. Etengabe ia. Berriz ere ikusiko dugu euskara harrika egiteko erabiltzen. Guk kanpainaren giroari eusten asmatu behar. Eta Euskaraldiarena natural bihurtzen.



XABIER TELLERIA
EUSKALTZALEA

Irudipena daukat funtzio publikoetarako postuetan, euskarari dagokionean, sarrerako gaitasunean baino jarreretan dugula ajea. Eta hor zerbitzari publikoaren gogoaz ezin da herritarraren aurretik jarri



Wifia nire lagunik onena



Zibermundua eta errealtatearen arteko gatazka batean bizi gara egun, animikoki zure sentimenduak emotikono bidez adieraztea nahikoa bihurtu da. Badira urte batzuk bihotza, negarra edo irribarrea hitzei tokia kendu diotela eta urte batzuetarako gelditu direla ematen du.

Garai batean kafea hartzea tentsioa kentzeko puntua zen bezala, gaur egun, Facebook, Instagram edo Twitter bidez gure gogoetak eta gure borroka pertsonalak lau haizeetara jaurtitzen ditugunean barne korapiloak lasatzeko irtenbidea dela uste dugu, eta bide batez konturatzten gara gure adierazpenek ez dutela erantzunik edukitzen, beraz ordenagailuarekin elkarriketa hotz batean murgiltzen gara.

Horrek hainbat irakurketa izan ditzazke, alde batetik, gizarte harremanak aldatzen doazela azken urteetan eta gero eta mundu isolatuago edo atomizatuago batean bizi garela, nik bezperan jarritako esaldiari erantzuten dien zain egonez, influencer edo youtuber Sena pizturik. Bigarrenik San Google bilatzilearen bidez gure inketudeak eta desirak bertan bilatzen ditugu, sakonki aztertu gabe zergatik bilatzen dudan edo zertarako balio ote didan, hau da berriro ere gizaki alienatu bat bilakatzeko gara, non ahoz ahoko elkarriketak eta publizita-

teak zer bilatu nahi dugun «gomendatzeko» digunean.

Hau horrela Google edo Facebook-ek joko zikina dago atzean, nabigatzea deitzen dioten hitz toxikoa erabiliz, non mugikorra, Tablet-a edo ordenagailuaren bidez bakoitzaren pentsamenduak estatikoki gorderik geratzen dira ozeanoz bestaldeko disko gogor batean, horregatik izena du portatila, gure asmoak eta gustuak multinazionalen Datu Basera bidaiatzen dutelako. Azken urtean Google edo Facebook-ek guk utzitako aztarna saldu ditu, honela gure datu pertsonalak, balio ekonomikoa edukitzera igaro dira azken boladan, pertsona izan beharrean erabiltzaile zenbaki bat izatera igaro baikara. Horrek esan nahi du gure intimitatea bortxatua dela gure argazkiak edo mezuak salgai hutsa bihurturik, erosle onena noiz azalduko zain gure aztarna informatikoa gorderik, horren adibide dugu hurrengo kanpaina politikoa mugikor bidez zabalduko dutela, aurrekoak murriztuz eta gastu baskarra gure datuen meatzaritza da, hau da hain preziatua den lehengaia lortzea.

Beraz, teknologiaren subiranotasun batean bizi garela uste dugunean ere, hirukiaren oinarrian jarraitzen dugu, menperatuak izaten jarraituz. Hau da datu komertzial batean bihurturik.



**ANDER OTAÑO
ZUBELDIA**
GEOGRAFOA

Osasun programetako pazienteak, farmazian



12

Gaur egungo farmaziak asko indartu diren eremuak dira. Milaka osasun behar sortzen dira etengabe eta hauei aurre egiteko baliabideak edukitzea beharrezkoa da. Gure lanaren mui-na, osasun profesional bezala, farmaziara hurbiltzen den edonori entzun eta arreta egokia ematea da.

Farmaziek osasun programa eta zerbitzu ezberdinetan parte hartzen dute; esaterako, Metadonaren Mantenu Programan (MMP) eta Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua (DSP) osasun programetan.

Baina, zertarako balio ote du hauetako bakoitzak?

Metadonaren mantenu programa drogodependentzia egoeran dauden pertsonentzat bideratuta dago. Opiazeoen ordezkapen zerbitzua da. Zerbitzu honi esker, pertsona hauen bizitzaren kalitatea hobetzeaz gain, beraien gizarteratze prozesua erraztu egiten da arrisku praktikak saihestea

lortuz. Indarrean dauden erabiltzaileak, bizilekutik gertuen daukaten farmazia bulegoan beren kabuz jasotzen dute tratamendua.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua (DSP) programa, bereziki, egune-

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua (DSP) programa, bereziki, egunean sendagai asko hartzen dituzten pertsonentzat bideratuta dago

Osasun programa hauek burutzen dituen herriko farmazia bulegoan aritu gara ikasitakoa praktikan jartzen

an sendagai asko hartzen dituzten pertsonentzat bideratuta dago. Farmazian pazientearen eguneroko botika guztiekin astebeterako prestatzen den gailu bat da, non egunaren otordu/une bakoitzean hartu beharreko sendagaiak sailkatzen dituen.

Pertsona hauen bizitza asko errazteaz gain, akats asko murrizten ditu eta nahasteak ekiditen ditu. Horrela, pertsona hauek eguneroko tratamendua hartzerako garaian, erosoago eta lasaiago sentitzen dira.

Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolak, osasun programa hauek irakasteaz gain, errealiterara eramateko aukera bikaina eskaini digu. Osasun programa hauek burutzen dituen herriko farmazia bulegoan aritu gara ikasitakoa praktikan jartzen. Gero, ikastolan, gutako bakoitzak farmazian izandako esperientzia azaldu diegu ikaskideei.

Guretzako esperientzia ezin hobea izan da, asko ikasi dugu eta erabiltzaileei eskaini diegun laguntzaz oso harro gaude.

**FARMAZIA ETA PARAFARMAZIAKO
TEKNIKARIA ZIKLOA**
2. MAILAKO MALI TALDEA

URTEKO AZKEN ERRONKA

Villabona-Zizurkilen, Tolosan, Berastegin, Lizartzan, Alegian eta Ibarran urtea korrika amaituko dute. Urtezaharreko lasterketa, krosa edo San Silvestre izena hartzen duten probetan ibilbideak haur eta helduentzat egokiak izango dira. Korri egiteaz gain festa giroa ere egongo da.

13



Urkamendi eta Zunbeltz elkarteek antolatzen dute eskualdeko Urte Zaharreko lasterketarik beterranoena. MIKEL IRAOLA

Asier Imaz

Urtea astelehenean amaituko da, eta urte berriko erronkei heldu aurretik bat geratuko zaie hainbatei: Urtezaharreko lasterketa. Tolosaldean sei proba antolatzen dituzte zazpi herritan; Zizurkil eta Villabona elkarrekin aritzen dira lanketa horretan. Ohitura horretara elkartzen azkena Ibarra izan zen. Hauspoa Elkarateak antolatuta, aurren zazpigarren edizioa egingo dute. Bederatzirekin Alegia azaltzen da; 13rekin Lizartza; Berastegin 15. edizioa izango dute; Tolosan 21.a eta Villabona-Zizurkilen izango da lasterketarik zaharrena.

Urte amaierako lasterketak San Silvestre izena hartzen dute han eta hemen. Tolosaldean Urte Zahar Krosa, Elkartasun Krosa, Urte Zaharreko Krosa edo San Silvestre. Urkamendi eta Zunbeltz elkarateak izan ziren eskualdean lasterketa hau antolatzen lehenak, duela 35 urte. Zizurkil eta Villabonako elkarateek bi herrietatik barrena ibilbidea osatu zuten, eta jendea pixkanaka-pixkanaka animatzen joan zitzairen. 2017an 470 parte hartzaile izan zituzten; haur nahiz heldu.

Aiztondo bailarakoen adibideari Tolosako Samaniego eta Orixe ikastetxeek jarraitu zien. Hauei arrakasta segidan iritsi zitzairen, eta eskualdeko lasterketarik jendetsuena bilakatu zen Elkartasun Krosa. Joan den urtean 1.400 lagunetik gora atera ziren korrika: 800 heldu eta 600 haur inguru.

Tolosaldera, nondik?

Eskualdean errotu aurretik, San Silvestre lasterketa beste hainbat txokotan egiten zen. Tolosaldeko ohitura, beraz, Euskal Herrikoa ere bada. 1961. urtera joan behar da bertan lehen San Silvestrea aurkitzeko. Galdakaon izan zen, eta 1973. urtera arte ez zuen jarraikortasunik izan, hau da, tarteak ospatzen zen. Ondoren bai, urteroko ohitura bilakatu zen.

Santua korrika, ordea, ez zuten lehen aldiz Euskal Herrian jarri. Eskualdera bezala, beraz, Galdakaora ere non-baitetik eraman zuten ideia.

San Silvestrerik zaharrena Brasilen egiten dena da, Sao Paulokoa. Horregatik, bertan sortu zela esaten duenik bada. Brasileko lehen edizioa 1925ekoa izan zen. Abenduaren 31ko gauean hasi eta urtarrilaren 1eko goizean amaitu zen. Ibilbidean zehar, parte hartzaileek argi-zuziak eraman zituzten bidea argitzeko.

Argi-zuziekin, ordea, aurrez beste lasterketa bat egina omen zen, Parisen. Kasu horretan urtarrilaren 1ean ospatzen zen karrera, eta argi-zuziak eskuan, parte hartzaileek Frantziako hiriburua zeharkatzen zuten. Casper Libero kazetari brasildarrak ideia hori Sao Paulora eraman zuen. Horrela bilakatu da Brasilgoa lasterketarik zaharrena eta jarraikortasun handiena izan duena.



Alegiako San Silvestrean haur mordoak irteera hartzeko prest. ATARIA

Santuari galdezka

Lasterketaren izena santu batena da. Atletismoarekin, ordea, ez zuen inolako loturarik izan Silvestrek. Santutegiaren arabera abenduaren 31 San Silvestre eguna da, eta lasterketa eta izenaren arteko lotura horixe da.

Silvestre I.a santua izan aurretik Aita Santua izan zen. 65 urterekin hil zen. IV. mendean eliza katolikoaren gidaritza hartu zuen Silvestre I.ak. Constantino Handiaren laguntzarekin, elizak zabalkunde handia izan zuen garai hartan. Kondairaren esanetan, San Silvestrek gaztea zenean beste kristau bati lur eman omen zion. Hura, fedegabeko batzuk eraila izan omen zen. Lur emateagatik Erromako prefektuak San Silvestre atxilotu egin zuen. Deklarazioa hartu ondoren, militar hura hil egin zen, arrain hezur batekin itota. Heriotza hura zeruaren seinale moduan hartua izan zen, eta Silvestre aske utzi zuten. Denbora gutxira Aita Santu izendatu zuten.

Elkartasuna eta mozerroak

Urteekin santuaren izenaren pisua galtzen joan da eta gaur egun Euskal Herrian eta Tolosaldean Urtezaharreko Krosa bezala ezagutzen da lasterketa, leku gehienetan. Elizare-



kin izan lezakeen harremana, berriz, mozorrotara mugatzen da. Izan ere, urtetik urtera jende gehiago irteten da lasterketa honetan mozorrotuta. Tolosan ikusten dira gehienak. Normala ere bada, izan ere, parte hartze handiena bertan izaten da. Horrez gain, Marijo Arretxe tolosarrak ondoren esaten duen bezala, inauterizale izateak ere laguntzen du. Apustua, berriz, Alegian egiten dute, mozorro onenari saria ematen baitiote.

Azpimarratzeko beste puntua elkartasunarena da. Alegian izen ematearekin biltzen den dirua Mukwano-Lagun Gobernu Kanpoko Erakundearentzat izango da. Tolosan, berriz, Kolonbiara bideratuko dute diru bilketa, hain zuzen ere, Cocuyo Elkarteari emango zaio. Samaniego-Orixetik azaldu dutenez, Kolonbian duen ongintza proiektua laguntzeko izango da: «Guabas ibaiaren inguruan bizi den komunitateko Mando Liburuzaina proiektuaren jarraipena egiteko erabiliko dute».

Abenduaren 31n, beraz, urteko azken eguna korri eginaz bukatzeko aukera egongo da. Aurten bere burua horretarako gai ikusten ez duenak, aldiz, erraza dauka: korrikako erronka jar dezala urte berriko erronken zerrendan. Horrela, 2019a korrika amaitzeko aukera izango du.

Tolosaldeko Urtezaharreko lasterketa zaharrena Villabona-Zizurkilen egiten dena da

Euskal Herrian lehena Galdakaon egin zuten 1961ean; munduko San Silvestrerik zaharrena Sao Paulokoa da



VILLABONA-ZIZURKIL ELKARTZEN DITUEN LASTERKETA

16:00etan hasiko dira benjaminak korrika Villabonako Zumbeltz Elkartearen aurretik. Hortik aurrera, alebinak, infantilak eta kadeteak irtengo dira. Lasterketa nagusia 16:30ean hasiko da. Bertan jubenilek, nagusiek eta beteranoek hartuko dute parte, 6,5 kilometroko ibilbidea eginez. Izen ematea dohain da herrikrosa.eus webgunean edo Zumbeltz Elkartearen egunean bertan, 11:00etatik aurrera. Maila bakoitzeko lehenek saria izango dute, eta helduen proban bigarrenek ere bai. Bestalde, parte hartzaile guztien artean hamar afari zozkatuko dira. ATARIA

TOLOSAKO ELKARTASUN KROSAREN 21.A

15:30ean hasiko da Samaniego-Orixek antolatzen duen Elkartasun Krosa benjaminen lasterketarekin, Zerkausitik. Ondoren alebinen eta infantil txanda izango da. 16:45ean hasiko da helduen krosa, 5 kilometroko ibilbidearekin. Izena Shanti Kirolak denda eman behar da, 8 eurotan. Egunean bertan 12 euroan jarri dute dortsala. Haurrek ez dute izenik eman behar, lasterketara azaltzea nahikoa izango dute. Bestalde, aurtengo edizioan Josune Gorostidi omenduko dute. Elkartasun Krosean lortzen den dirua, berriz, Kolonbiako Co-cuyo Elkartearentzat izango da. ATARIA



AZKEN HIRU URTEETAN BEZALA LASTERKETA MISTOA ERE EGONGO DA

18:00etan hasiko dira korrika Berastegin plazatik abiatuta. XV. Urte Zaharreko Kros Herrikoian izena emateko epea zabalik dago, Urepele Elkartearen, eta abenduaren 30aren aurretik apuntatzen denak kamiseta bat izango du opari; egunean bertan izena ematen duenak ez bezala. 2006tik gora jaiotakoek, aurrez apuntatuta 5 euro ordaindu beharko dituzte, eta egunean bertan, 7 euro. 2005etik behera jaiotakoek 6 euro aurrez, eta 8 euro irteeran. Azken hiru urteetan bezala, talde mistoen sailkapena ere egingo da. ATARIA



LASTERKETA ONDOREN TXOKOLATE BEROA EGONGO DA LIZARTZAN

17:00etan hasiko da Otsabio Kirol Elkar-teak antolatzen duen San Silvestre lasterketa Lizartzan. Aurtengoa 13. edizioa izango da eta haur nahiz helduek izango dute bertan parte hartzeko aukera. Ondorioz, Otsabio KE-koek bi ibilbide prestatu dituzte. Laburra haurrentzat egokituia izango da, eta luzea, 3 kilometrokoa, helduena izango da. Lasterketa amaieran parte hartzaile guztientzat txokolatea egongo da, elkartean. Otsabiotik lizartzar guztiak eta inguruko herrietakoak urteko azken eguneko lasterketan parte hartzera gonbidatu dituzte. ATARIA



MOZORRO ONENARI SARIA EMANGO DIOTE ALEGIAN

16:00etan emango zaio irteera Alegiako San Silvestre lasterketari. Aurrebenjaminen, benjaminen, alebinen, infantilen, kadeteen, helduen eta 45 urtetik gorako beterenen lasterketak izango dira. Izena aurrez eman ez duenak egunean bertan eman ahaliko du, 14:30etik 15:30era 6 euroren truke. 16 urtetik beherakoek ez dute ordaindu beharko. Biltzen den dirua Mukwano-Lagun Gobernu Kanpoko Erakundearentzat izango da. Mozorro onenari saria emango diote, eta parte hartzaile guztien artean opariak zozkatuko dira lasterketa amaieran. ATARIA

IBARRAN ERRONKAREKIN DATOR URTE ZAHAR KROSA

16:00etan irtengo dira haurrak herriko plazatik Ibarra. Helduen lasterketa 16:30ean hasiko da. Aurtengoa Urte Zahar Krosaren zazpigarren edizioa izango da. Iaz 124 heldu, 16 urtetik gorakoak, eta 216 gaztetxo atera ziren korrika. Antolatzaileek erronka bota diete herri-tarrei: «Aurten zenbat? Pixka bat gehiago bai, ezta?». Hauspoa Elkar-tekoek parte hartze zenbakiak handitzen ikusi nahi dituzte, eta horretarako herriko hainbat merkatariren laguntza izan dute, laguntzaile zerrenda oparoa osatuz. ATARIA



«FESTATIK GEHIAGO DAUKA LASTERKETATIK BAINO»

MARIJO ARRETXE
KORRIKALARIA

Tolosako Elkartasun Krosean mozorroturik irtetea gustatzen zaio tolosarrari; Emakume Taldeko kideekin hartu zuen ohitura hori eta orain urteroko lege bilakatu zaie

Ezustean hartu du elkarrizketa Marijo Arretxek (Tolosa, 1970). Txinkorta eskolako zuzendaria da, Bidania-Goiatzen eta bertatik erantzun ditu galderak. Arazo handiegirik ez du jarri, korri egitea izugarri gustatzen zaiolako eta urteko azken lasterketa bere bizitzaren parte bilakatu delako.

San Silvestre lasterketak han eta hemen egiten dira. Zuk Tolosako Elkartasun Krosarekin daukazu lotura. Nondik dator harremana?

Samaniegoin irakasle bezala aritu nintzen lanean bere garaian. Tolosako Elkartasun Krosa Samaniegok eta Orixek antolatzen dute, eta lan horretan ibiltzea tokatu zitzaidan, pixka bat laguntzen. Horretaz gain, korrika ere parte hartzen hasi nintzen. Lehen, Tolosako emakume talde batekin ibiltzen nintzen korrika. Bata eta bestea elkartu ziren eta Urtezaharreko lasterketa herrian bertan zenez, guztia lotuta geratu zen.

Elkartasuna presente duen lasterketa da Tolosakoa.

Bertan ateratzen den dirua Kolonbiara bidaltzen da, Mando Liburuzaina proiektura. Horregatik dauka Elkartasun Krosaren izena.

Emakume talde batekin aritzen zinela korrika esan duzu. Nondik sortu zen talde hori?

Emakumea eta kirola elkartzeko ekimen baten barruan izan zen. Herri desberdinetan jarri ziren taldeak martxan. Fortunak entrenatzaile batzuk jarri zituen, eta gu Itsaso Leundarekin ibiltzen ginen. Emakume talde bat elkartu ginen, batzuk maila bat bazutenak eta besteak hasiberriak. Bakoitza bere martxan ibiltzen zen, astean bitan elkartuz: astearteetan eta ostegunetan. Maila desberdina genuenez, helburuak ere bakoitzak bereak zituen: Behobia-Donostia, Lilatoia edo San Silvestrea. Urteko azken eguna iritsi zenean eta festa giroan ospatzen zenez Tolosako lasterketa, mozorroturik ateratzeko ideia sortu zen. Horrela hasi ginen eta horrela jarraitzen dugu. Aurten ere aterako gara.

Talde horretara elkartu zinenean, zein zen zure helburua?

Nik korri egunero egiten nuen, baina bakarrik ibiltzen nintzen. Taldeko batzuk ezagutzen nituen eta oso gustura zebiltzala esaten zidaten. Bakarrik ez ibiltzeko hasi nintzen



Marijo Arretxea, 99 zenbakiarekin, 2015eko
Tolosako Elkartasun Krosean. NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ

eurekin. Ordura arte Villabonara iristen nintzen, baina Itsaso Leundarekin gauza desberdinak egiten hasi ginen. Oso gustura ibili nintzen taldean aritu nintzen denboran.

Gero utzi beharrean izan zinen, ordea.

Korri egiten jarraitzen dut, baina iaz ordutegiagatik ezin nintzen eurekin ibili. Hala eta guztiz ere, lotura hori mantentzen dugu eta Elkartasun Krosean beraiekin ateratzen naiz; aurten ere bai.

Zergatik amaitu urtea korrika eta mozorrotuta?

Niri kirola izugarri gustatzen zait, eta batez ere korri egitea. Lagunekin horrelako giroan eta mozorrotuta, niretzat oso polita da. Pentsatzen jarrita ezin dut pentsatu hori egingo ez nukeenik. Urtea horrela bukatzea gustatzen zait.

Galdera, beraz, ondorengoa da: zergatik ez amaitu urtea horrela?

Hori da. Gure kasuan lagun baten dendan janzten gara. Xanpaina ere ateratzen dugu, eta korri egitea gustatzen baldin bazaizu, lagun artean, oso polita izaten da. Niri behintzat ez zait luzea suertatzen.

Tolosari mozorroak gehitzen baldin badizkiozu inauteria ateratzen da. Nondik sortu zitzaizuen urteko azken egunean mozorrotzeko ideia?

Gure kasuan ez dakit ideia nondik sortu zen. Arrameleko Krosa korritua nintzen eta lotsa puntu batekin. Ez zait gus-



tatzen Tolosan korri egitea sailkapenari begira; dena ematera joatea. Mozorrotuta beste kutsu batekin ibiltzen zara. Eguna horrela da eta horregatik ateratzen zara. Pixka bat ezkutuan joaten zara. Niretzat festatik gehiago dauka lasterketatik baino. Gure artean, beraz, besterik gabe sortu zen ideia eta urteroko ohitura bilakatu da.

Noiz erabakitzen duzue mozorroa?

Bezpera arte ez dugu jakiten zertaz aterako garen. Taldean bateren batek ideia botatzen du, beste batek argazkiren bat bidaltzen du mozorroarekin eta gainerakoek euren ekarpenak egiten dituzte. Bakoitzak bere aldetik osatzen du mozorroa. Gutxi gorabehera horrela izaten da mozorroen prozesua.

Orain arte erabili dituzuen mozorroak zeintzuk izan dira?

Etiopeko korrikalariz atera ginen urte batean, bandera eta guzti. Beste batean udaletxeko korporazioaz, sanjoanetako prozesioan bezala, baina korrika. Urte amaierako kotilioiaz ere atera ginen, lentejuelazko soineko batekin. Txakurra eta artaldearena ere gogoan dut...

Jendeak kanpotik nola begiratzen zaituzte edo zuek nola ikusten dituzue?

Azkenean ez zoaz jendeari begira. Norbaitek izenez deitzen baldin badizu animoak emateko konturatzen zara,

«Antolakuntzan eta laguntzaile modura hasi nintzen, baina korri egiteko aukera ere izaten nuen»

«Festa giroan ospatzen den lasterketa denez, mozorroturik ateratzeko ideia izan genuen»

«Lagunekin mozorroturik korri egitea oso polita da; mozorroan sartuta joaten zara ibilbidean»

baina bestela mozorroan sartuta zoaz eta giro horrek erabat murgiltzen zaitu.

Urtea, beraz, inauterien kutsuan amaitzen duzue eta hasi, berriz, zer esanik ez.

Festa eta festa dira. Tolosarrak izanik hori barruan dauka. Ez dugu lotura zuzenik egiten, baina batzuetan inauterietan ibilitako mozorroekin ateratzen zara Elkartasun Krosean. Artalde eta txakurraren kasuan, adibidez, ardi mozorroa etxean nuen eta horrekin irten nintzen korrika. Ez dakit noizkoa zen, baina inauteri batzuetan erabilia neukan. Korporazioaren kasuan ere, Sevillana jantzien soinekoak hartu, konponketa batzuk egin eta aurrera. Berrirabili egiten dituzu mozorroak azkenean.

Zuentzat eguna hor amaitzen da edo taldean zerbait gehiago egiten duzue?

Korrika ateratzen garenok gero elkartu eta xanpainarekin ospatzen dugu. Ondoren, bakoitza bere familiarekin joaten da.

[Renotik] Bueltan



Zuek hau irakurtzerako Euskal Herrian egongo naiz, eta askorekin topatu ere topatu izango naiz honez gero, baina oraintxe bertan Ozeano Atlantikoaren gainean joango naiz nonbait. 250 bat lagun gaude hegazkinean, ilunetan eta gehienak lo. Badira ordu batzuk jada Reno utzi dudala, hartu ninduenen baino 30 bat gradu gutxiagorekin. Hiru hila betean zehar osatu dugun familiatxoa ni etorri baino lehentxeago hasi zen kraskatzen eta aste pare batean gehienak faltako gara. Espero zen, baina penatxoa ematen du.

Esan ohi da aireportuak ezlekuak direla, guztiak berdinak, mundu

errealetik apartatutako eremuak. Gehienek badute, hala ere, zerbait berezia, nortasuna eman nahian bezala: Madrilen urdaiazpikoa saltzen



HARITZ AZURMENDI
FILOSOFOA

zuten, Mexikon tekila bereziak dituztela badaikit,... Eta Renon? Renon makina txanponjaleak eta moketa daude, datozenei kasinoetara ongi etorria egiteko edo doazenei azken txanpona zukutzeko. Oraindik gogoratzen dut iristean sortu zidaten irribarre harritua. Gero, behin hegazkina aireratuta, paisaiaren espektakuluarekin entretenitu naiz. Ikusi ditut itsaso bat laino, mendiek hahemenka zulatuak; asfaltozko errekek mila, auzoak karratutan banatuz,... Ez nau harritzen Reno-

ren bigarren erreklamo turistikoa, kasinoen ondoren, natura izateak.

Los Angelesera iritsi naizenerako gautzen ari zuen. Ez dakit inoiz ikusi

dudan halako argi zelai erraldoirik, urrunean hasi eta itsasertzak bat-batean eteten zuena. Ez dut denbora handirik izan horri begira geratzeko, hala ere. Eskala laburrek ematen duten presarekin atera naiz hegazkinetik zuzenean terminalez aldatzeko. Orain 11 orduko parentesi bat Madriler a iritsi arte. Gero beste esprint bat terminalez aldatzeko eta laster etxean. Badaukat gogoa! Beldur bakarra *jet lag*-ari diot, ordu aldaketaren trantzeari. Abisatua nator joanekoan baino gogorragoa dela. Horregatik, asteburuan Tolosan edo Alegiako Gazte-txean desordutan ikusi banauzue errukitu zaitezte ordutegia guztiz nahaspilatuta daukan honetaz, bertako errutinara ohitzen ari da eta.



TOLOSA

ETA TAFALLA

IRUDITAN,

PAREZ PARE

T+T, bi herriek komunean dutena argazki bidez erakusten ari dira, egunotan, Aranburu Jauregian. Tolosako Targazki elkarteak eta Tafallako Higuera argazki elkarteak elkarlanean prestatu dute argazki multzoa.

Irati Saizar Artola

Hogeita hamar gai eta hirurogei argazki. Erdiak Tolosakoak, eta beste erdiak Tafallakoak. Halaxe apaindu dute Aranburu jauregia Gabonen bueltan, T+T erakusketarekin. Urtarrilaren 12ra arte egongo da zabalik.

Proiektu honen helburu nagusia, Tolosak eta Tafallak komunean dituzten gauzak argazkien bidez erakustea izan dela nabarmendu du Miren Atxaga Targazki elkarte-kideak: «Felipe Gorriti organo jotzailea, adibidez, bi herrietan aritu izan da jotzen; Santa Maria eliza ere bietan dago, edota bi herriek dauzkate entzute handiko sopranoak, Tolosan, Ainhua Artera, eta Tafallan, Sabina Puertolas. Horrelako gaiak jorratu ditugu».

Targazki elkarteko kide den Asier Garagarzak ekarri zuen ideia Tafallatik Tolosara, «hemen guztia bezala, mahai baten bueltan atera zen kontua». Erakusketa bat jarri zuen Tafallako kultur gunean, eta hura jasotzera joan zeneko bazkari batean bururatu zitzairen. «Hona etorri eta guri kontatu zigun. Nafarra naiz gainera, eta ilusio berezia egin zidan nahasketak», gogoratu du Atxagak.

Guztira, 30 gai izoztu dituzte iruditan eta hilabeteetako lana suposatu die horrek. «Hemengo hiru lagun Tafallara joan ginen eta han erabaki genituen gaiak». Hona bueltan, gaiak banatu, eta bikoteka banatu ziren, talde lana sustatuz, gaia lantzeko. Targazki elkarteari «lan handia» suposatu badio ere, «talde sentsazioa areagotu» duela argi ikusten du argazkilariak. «Horrelako lan bat pentsatu behar da iraupen lasterketa bat dela, ez dela ehun metro lisoko karrera bat. Eta gainera taldean, motelago zoaz eta bidea luzea da, baina oso aberatsa».

Argazki guztien zubi lanak egiten, kasu honetan idatziz, Emilio Latorre tolosar-tafallarra aritu da. «Bi herriak oso ondo ezagutzen ditu, eta azalpen guztiak berak idatzi ditu, bai erakusketarako eta baita katalogorako ere». Erdaraz idatzi ditu testuak eta Tolosako Udala arduratu da euskarara itzultzeaz.



Horrelako proiektu bat egitea, ordea, ez da kamerari klik egitea soilik. Ez dira Targazkiko kide guztiak argazkiak ateratzen ibili. Argazkirik egin ez dutenak, kartelak prestatzen, lokalizazioak bilatzen eta kontaktuak egiten aritu dira, ondoren, argazkiak atera ahal izateko. «Talde bezala aritu gara», horregatik, izen-abizenek sinatu gabe aurkeztu dituzte argazkiak, Targazkiren izenean. Tafallarrek izen abizenekin sinatu dituzte haien argazkiak, eta ia 25 argazkilarik hartu dute parte.

Itsu-itsuan egindako zita bat izan dela dio Atxagak. Bikoteka daude argazkiak, eta inaugurazio egunean ezagutu dute elkar, baten egileak eta bestearenak. Bi argazkien arteko lehian pentsatu ere ez du egin: «Seguru nago jendeak konparaketak egin dituela, baina, nire ustez, lehia oso gauza maskulinoa da, eta guk nahiago izan dugu proiektua kooperatiboagoa izatea, denon artekoa izatea». Jendearen artean sortzen den sinergiarekin geratzea hautatu du.



Beste bi, aukeran

T+T erakusketaz gain, beste bik ere hartua dute beren lekua jauregian. Azken urteetan jarri ohi duten Argizaiola da bata, eta XXXII. Espainiako Argazkilaritza Konfederazio Kongresuko lehiaketakoa, bestea. Biak, Asier Garagarza argazkilaria ingurukoak dira. Iazko Argizaiola lehiaketa irabazi zuen, eta tartean, beste bi parte hartzaile tolosarren argazkiak ere ikusgai daude.

Hirugarren erakusketa, «ezustean» sartu zaiela adierazi dute. «Duela hiru hilabete inguru, Espainiako Konfederazioaren Kongresua ospatu zen eta lehiaketa bat egiten dute. Argazki taldeek, argazkilari bat aurkeztu behar izaten dute eta gure taldetik Asier Garagarza aurkeztu genuen. Bingo! Berak irabazi zuen sari nazionala». Beste bi finalisten argazkiekin batera, Garagarzarenak ere ikusgai daude. Hauek ere, urtarilaren 12ra arte.

«Horrelako lan bat
pentsatu behar da
iraupen lasterketa bat dela,
ez dela ehun metro lisoko
karrera bat. Eta gainera
taldean, motelago zoaz
eta bidea luzea da,
baina oso aberatsa»

Agenda

OSTIRALA ABENDUAK 21

ABALTZISKETA

KULTURASTEIA

11:00. Txalburu eskolak eskainitako hamaiketako eta egutegien banaketa herriko plazan.

20:30. Bertso zaharren afaria Eñaut eta Unai Agirrerekin, Larraitx-Gain jatetxean.

ALKIZA

ESTREINALDIA

18:00. Sormenaren Kabia 2018 ikus-entzunezkoaren estreinaldia egingo da Fagus Alkizan. Unai Sorarain bideogileak egindako ikus-entzunezko lanean, Kimia Kamvari eta Txiki Keixetak Alkizan zer nolako esperientzia bizi izan duten ikusi ahal izango da.

ALTZO

ANDONIEGAÑAREN

ESTREINALDIA

19:00. Andoni Egañaren bertso musikatuak abestuko ditu, Jon Ostolaza trikitilariak lagunduta. *Neretik* ikuskizun berria estreinatuko du, Batzarremuñon.

AMASA-VILLABONA

GABONETAKO AZOKA

09:30. Erribea institutuko azokako postuen irekiera.

10:00. Kantu jira.

10:30. Herri kirolak: toka eta sokatira.

11:00. Hamaiketako.

12:00. Dantza soka.

12:30. Sari banaketa.

12:45. Postuen itxiera.

MUSIKA

19:45. Villabonako Jesusen Bihotza elizan, Eresargi Txiki abesbatza eta Eresargi abesbatza kontzertua.

AMEZKETA

FILMA ETA AFARI MERIENDA

19:00–22:00. Nerabeentzako ekitaldia; filma eta afari merienda Gaztelekuan. Afaria Gaztelekuak jarriko du.

LARRAUL

KARAOKEA

17:30. Larraulgo liburutegian, karaokea egingo dute.



EHUNDAKA POSTU, EROSKETAK EGITEKO

Larunbateroko azokaren Zerkusiko, Berdura Plazako eta Euskal Herria Plazako postuei, Triangulo plaza, Plaza Zaharra, Alondiga Plaza eta San Frantzisko pasealekukoak gehituko zaizkie, 09:00–14:00etara. **I. GARCIA LANDA**

ZIZURKIL

SARI BANAKETA

17:30. Teodoro Hernandorena XVII. Ipuin Lehiaketa eta Plazida Otaño II. Booktrailer Lehiaketako sariak banatuko dituzte, Plazida Otaño liburutegian.

TXISTORRA JATEA

18:00. Elizpe Jubilatuta Elkarteak antolatuta egingo dute txistorra jatea.

LARUNBATA ABENDUAK 22

ALTZO

OLENTZEROTAN JAKIN-MIÑEZ

17:00. *Beldartxo Jatuna* antzezlan, Didau Antzerki Faktoriaren eskutik, Batzarremuñon.

18:30. I. Bideomaratoi Festa. Lehiaketara aurkeztu diren bideo guztien proiektzioak eta sari-banaketa ekitaldia.

20:00. Talo-jatea, Elordi elkartean.

Lehenengo haur eta gaztetxoak. 21:00etatik aurrera, gazte eta helduak.

ALKIZA

MUSIKA

18:30. Musika ikasleen emanaldia.

Kontzertu amaieran, bertaratutakoek zer jana eta zer edana ere izango dute.

AMASA-VILLABONA

MUSIKA

19:45. Eresargi Txiki eta Eresargi abesbatzek kontzertua eskainiko dute, doan, Jesusen Bihotza elizan.

MUSIKA

23:30. Basagaieneko Seletak ariko da zuzenean, Rbote musikabarnan.

TOLOSA

AZOKA BEREZIA

09:00–14:00. XXI. Gabonetako Azoka Berezia izango da herriko plaza ezberdinetan banatuta.

BONBERENEAREN URTEURRENA

11:00. Bonberenearen urteurrena ospatzeko, Bonberenea Txaranga kalera aterako da eguna ospatzeko. Goiz guztian zehar herriko kaleak alaituko dituzte.

14:30. Bazkari herrikoia egingo da.

MUSIKA

11:30. Joyful Gospel Choir taldearen kontzertua, eta txokolate beroa banatuko da, Berdura plazan.

MUSIKA

20:00. Euskal Barrokensemble taldearen kontzertua, Topic aretoan.

ZIZURKIL

IPUIN KONTAKETA

11:30. Ipuin kontaketa familia giroan, Pedro Mari Otaño eskolako gurasoen eskutik.

JOSTAILUTRUEKA

11:00–13:00. Gabonetako Aiztondoko Denbora bankuak antlatuta egingo da, Joxe Arregi plazan.

IGANDEA ABENDUAK 23

ANOETA

TOPAKETA

09:00–13:00. Frontoian Udal Pilota Eskolako topaketa.

ALEGIA

MUSIKA

18:30. Txintxarri txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua, elizan.

UMEENEGUNA

Alegiako Gaztetxearen 31. urteurrenaren barruan ospatuko dute Umeen Eguna.

AMASA-VILLABONA

MUSIKA

19:00. Gurea antzokian, The Upper Room gospel emanaldia izango da. Iñaki Miguel pianoan, Mikel San Jose ahotsean, Andoni Etxebeste baterian, Maria Soriazu baxuan, eta Karlos Etxaniz, Santi Romano eta Olatz Otxoa koroak egiten.

MUSIKA

19:00. Iban Nikolai Didgeridooren kontzertua, Rbote musikatabernan.

ASTEASU

ELKARTASUN KROSA

11:30. Asteasuko IV. Herri Kros Solidarioa, haur eta helduentzat. *Ikusi 5. orrialdea.*

IRURA

MUSIKA

11:00. Mezaren ondoren, Eguzkigoxo abesbatzaren emanaldia elizan.

TOLOSA

AGUR 2018, ONGIETORRI 2019

Amarotz auzoan izango da.

09:30. Diana txistulariekin.

11:00. Kalejira.

12:00. Jaiotza berrituaren inaugurazioa.

Ondoren. Barrikotea parbularioko estalpean: Salda, txorizoa, gaztainak...

GABONETAKO KONTZERTUA

12:15. Arimaz Kamera Orkestrak Gabonetako kontzertua eskainiko du, Luis Angel Iraolaren oroimenen, Santa Klaran.

EGUBERRIKONTZERTUA

19:00. Hodeiertz abesbatzaren Eguberri kontzertua izango da, Santa Klaran.

OKUPAZIO EGUNA

21:00. Bonbereneak Okupazio Eguna ospatuko du, afora eginez.

00:00. Su artifizialak.

ZINEMA

HANACIDO UNA ESTRELLA

Ostirala (19:30 eta 22:00).

Larunbata (19:30 eta 22:00).

Asteartea (19:30).

Gurea, Amasa-Villabona.



DANTZA

Larunbata (19:30 eta 22:30). Jatorrizko

bertsioan, gaztelerazko azpidatziekin.

Igandea (19:30 eta 22:00).

Jatorrizko bertsioan,

gastelerazko

azpidatziekin.

Asteartea (19:30).

Jatorrizko bertsioan, gaztelerazko azpidatziekin.

Leidor, Tolosa.



UDARE

ERRALDOIAREN

ISTORIO

HARRIGARRIA

Igandea (17:00). Haur

zinema familia

osoarentzat, euskaraz.

Leidor, Tolosa.



Gabon hauetan oparitu

**%30
DESKONTUA**

eguzkitako
betaurrekoetan

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren
etaugarriak. Ezingo da beste eskaintza
batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com



Agenda

ASTELEHENA ABENDUAK 24

ABALTZISKETA

09:00. Txalburu eskolako ikasle, guraso eta irakasleak kantuan aterako dira, baserriz baserri. Bazkaria egingo dute Larrunarri elkartearen eta gero, arratsaldean, kantari aterako dira berriro.

ADUNA

Goizean. Basopeta guraso elkarteak antolatuta bi taldetan kantari aterako dira herrian zehar. Eguerdian, Olentzero eta Mari Domingi izango dira herrian eta umeei opariak banatuko dizkiete.

ALBIZTUR

19:00. Olentzeroren etorrera, Elanetik abiatuta plazaraino. Ondoren, Olentzero udaletxeko arkupetan izango da haurren gutunak jasotzen.

ALEGIA

11:00. San Juan eskolako ikasleak abesten kaleetan zehar.

16:30. Txintxarri Abesbatza kantari ibiliko da kaleetan zehar.

18:30. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, eskola aurretik hasita.

ALKIZA

Goizean. Baserriz baserri kantari aterako dira herritarrek.

ELDUAIN

14:30. Kantu jira etxetz etxe, plazatik abiatuta.

ALTZO

09:30. Ikasle, irakasle eta gurasoen Gabon eskeko erronda etxetz etxe, Altzo Azpitik abiatuta.

AMASA-VILLABONA

17:45. Zunbeltz elkartearen eskutik txistorra banatuko da Otsabin.

18:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.

Ondoren. Errebote plazara jaitsiko dira musikariek eta dantzariak lagunduta.

AMEZKETA

09:30. Zumadi eskolako haurrak



Ugartetik aterako dira Gabon kantak abesteko.

12:00. Herriaren sarreran Olentzerorekin topo egingo dute haurrek. Gazte Taldeak antolatuta.

13:30. Haurrentzako bazkaria Zazpi Iturri elkartearen. Ondoren, Olentzerok txokolazteko irudi bat banatuko die haurrei.

ANOETA

Goizean. Ikastolako haurrak kantatzen ariko dira herritik. Eta baita Kukuak Kantuz taldekoak ere 12:30ak aldera.

18:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Kalejira egingo dute Solkorre eta Igarabide kaletik plazaraino. Ondoren, gozokiak banatuko dituzte haurren artean. Loatzoko ikasleak eta Anitz Dantza taldekoek hartuko dute parte ekitaldian.

ASTEASU

12:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, frontoian.

BALIARRAIN

10:30. Plazatik abiatuko dira kantuan aritzeko herrian barrena.

13:30. Atsedena hartzeko Zartagi jatetxean bazkalduko dute, eta ostean berriz kantuan jarraituko dute.

BERASTEGI

09:00. Guraso Elkarteak antolatutako gabon eskea.

15:00. Berriro ere Gabon eskea, Urepele Elkarteak antolatuta.

18:15. Olentzero eta Mari Domingi plazara iritsiko dira eta herritarrek abestu, dantzatu eta bertsoak abestuko dituzte.

BERROBI

10:30. Herriko kaleak kantuz alaitzeko jira, plazatik abiatuta.

12:00. Hamaiketako goxoa.

17:00. Begi-Urdin Gaztegunean ohiko bilketa egingo da.

18:30. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Berrobira: gaztetxoek egindako dantza-ongietoria eta jarraian, oparien banaketa egingo da.

19:00. Gaztaina jatea.

BELAUNTZA

15:00. Herriko tabernaren inguruan bilduko dira kantuan ateratzeko.

18:00. Olentzeroren etorrera eta oparien banaketa. Ondoren, merienda.

BIDANIA-GOITAZ

09:00. Txinkorta eskolako guraso eta ikasleak abesten aterako dira, Goiatzetik abiatuz.



18:30. Olentzero Goiazko plazara iritsiko da.

GAZTELU

18:30. Olentzeroren etorrera. Herriko haurrek dantza egingo diote eta Olentzerok opariak banatuko ditu.

HERNIALDE

09:00. Hernialdeko Bentatik abiatuta baserriz baserri kantari aterako dira herritarrak.

18:00. Olentzero iritsiko da plazara.

IBARRA

18:30. Olentzero eta Mari Domingiren jaitsiera, San Bartolome plazan, Hauspoa elkartearen eskutik.

IKAZTEGIETA

08:30. Herriko taldea, baserriz baserri eta herrian kantuan eta eskean.

18:00. Olentzero eta Mari Domingi iritsiko dira plazara umeei opariak banatzera.

IRURA

09:30. Kalez kale Gabonetako abestiak ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoekin. Ondoren, hamaiketako, plazan.

12:30. Mari Domingiren etorrera plazara

erabilitako jostailuak eta Olentzeroren gutunak jasotzera.

18:00. Olentzero opariak banatzera jaitsiko da, eta jaiotza bizidunari abestuko zaio.

LEABURU-TXARAMA

Arratsaldean. Gabon eskean aterako dira herriko ume eta gaztetxoak.

LIZARTZA

18:00. Olentzeroren etorrera, Otsolar dantza taldeak eta Hostotsa abesbatzak lagunduta.

ORENDAIN

09:00. Plazan elkartuko dira herritarrak etxez etxe abesten joateko. Ondoren bazkaria egingo dute Eltxo jatetxean.

OREXA

Arratsaldean. Etxez etxe kantari, puskak biltzen.

TOLOSA

12:30. Tolosako Musika Bandak Eguberrietako kontzertua eskainiko du Zerkausion, eta kalejira ere egingo dute.

17:30. Olentzero eta Mari Domingi Plaza Zaharretik abiatuko dira, eta Euskal Herria plazara joango dira eta Gazteluko arkutik pasa ostean, Zerkausion

bukatuko dute ibilbidea 19:00ak aldera eta 20:00ak arte bertan egongo dira.

20:00. Gorriti plazatik abiatuko da eta Korreo eta Zerkausia kaleetatik barrena plaza Zaharrera iritsiko da musika banda. Hemen, abesbatza eta herritarrekin batera, Olentzero eta Mesias Sarritan abestiak eskainiko ditu. Ondoren Kale Nagusitik barrena Plaza Berrira joango da; hemen, Eguberrietako beste bi abesti jo ondoren, kalejira amaituko da.

MANIFESTAZIOA

18:45. Tolosako Sare herritarrak deituta Traingulotik abiatuko da manifestazioa *Eman argia bidearilelopean*, Preso eta iheslariel elkartasuna adierazteko 24 minutuz babesa adierazteko dela egin dute.

ZIZURKIL

Goizean. San Millan ikastetxeko umeak Herriguneko baserrietan abesten ibiliko dira, eta, amaieran, Olentzeroren bisita jasoko dute. Elbarrenan, berriz, Pedro Mari Otaño ikastetxeko eta Zubimusu ikastolako umeak ibiliko dira abesten. Ondoren, hamaiketako egingo dute Urkamendi elkartearen.

17:30. Olentzero eta Mari Domingi Urkamendi aldetik jaitsiko dira, Loatzto musika eskolako musikariz lagunduta. Plazan, Bukalai dantza taldekoek dantza-saio bat egingo dute, eta Loatzto musika eskolakoek abesti batzuk joko dituzte.

Ondoren. Olentzero eta Mari Domingiri musu emateko aukera izango da.

ASTEARTEA ABENDUAK 25

ALEGIA

MUSIKA

11:15. Txintzarri Abesbatza kantuan ariko da meza nagusian, elizan.

ANOETA

KALEJIRA

12:00. Anoetako txistulari taldearen kalejira.

Gutuntxo bat



ALEX GOIKOETXEA

Ohartzerako aurrera joana zaigu urtea egiten hasi beharko urtearen balantzea nola hain garrantzitsu den tradizioa zaintzea ta gure Olentzerori gutuntxo bat idaztea nik eskatu nahi nioke orain legez jarraitzea ta hemen ez daudenez gain daudenez gogoratzea



Doinua

Papa cuentame otra vez

Atzerapena

Whatsapp bat jaso dut, lankide batek atzeratu egingo dela jakinarazteko bidali didana. Eta mezuaren eta atzerapenaren arteko loturari buruz pentsatzen hasi naizenean uste baino estuagoa ez ote den bururatu zait.

Denok jaso dugu noiz-bait atzerapen bat jakinarazteko whatsapp bat, eta denok pentsatu izan dugu atzerapenez datorrena iritsi zitekeela garaiz benetan nahi izan balu. Ez ote da izango aitzakia jartzeko erraztasunak atzerapenarekin

iristera bideratzen gaituela? Ez ote dugu jakinarazteko erraztasun telematikoa atzerapenarekin iristeko baimentzat hartzen?

Aitzakia izateak ez egitera bultzatzen ote gaituen pentsatzen ari nintzela iritsi da lankidea. Berandu iritsi da noski, baina bere hitzetan mezuan jarritako ordurako. Niretzat berandu iritsi da, beretzat puntuana. Eta biontzat aitzakia eta ez egitearen arteko harremana politika bezalakoa eremuetara estrapolatzea saihesteko garaiz.



AITOR MENDILUZE
KALE KANTOITIK 107.6 FM

Denok pentsatu izan dugu atzerapenez datorrena iritsi zitekeela garaiz benetan nahi izan balu

POESIA KARLOS LINAZASORO



Ezer ez da osorik eder

Den orok dauka arrakala
Harria pitzatu egiten da horman
argiak zirrikitutik arnasten du
Gure haragia zauri baten oroimena da
Ezer ez da osorik eder
Akatsak egiten du arroza maitagarri
Hitzak gehiago esaten du isilik

Poema lizundu egiten da paperean
Den oro ezer ez da bere baitatik irteten ez bada
Ez badu zulorik egiten begira dagoen begian
Ez badaki betiko oroitua izanen dela
Ahanzturak nekaezin lantzen duen artesian?

Lurra bere erro gorriara (Balea zuria, 2018).

Ausardia eskatu diot Olentzerori

Norbere buruari eskatzea ongi dago, baina ez gehiegi. Eta neure burua aztertuta (eta uste dut zu ere ez zarela horretaz libratuko) ikusi dut neure buruari ez diodala ongi eskatzen, gehiegi eskatzen diodala: autoexigentee-gia naizela alegia.

Bizi garen gizarteak arau batzuk ematen dizkigu, norma batzuk eta horien barruan sartzea da normala izatea. Beraz, normala izatea taldeko arauak jarraitzea da. Txikitatik ikasten dugu taldera egokitzen, moldatzen. Hasi txikitatik egin-gu ditugun jolasetan, klasean egoteko moduan, familiak esandakoaren arabera eta medioetan ikusten dugunaren arabera. Halere, horrek ez du esan nahi nire barruak, berez, arau horiek eskatzen dituenik; bete nahi dituenik.

Arau horiek lege bihurtzen dira. Justiziazkoak izan daitezke, idatziak; edo aho batez onartzen ditugun arau ez-idatziak. Txikitatik hainbeste mar-katzen zaizkigu arau horiek, ze ez di-tugu ezbaian jartzen. Baliteke gure ba-

rruak horiek gauzatu nahi ez izatea, baina bururik altxatzen ez duenak aitagurea bezala ikasten ditu, mirari bat bezala sinesten.

Arau horietatik kanpoko zerbait

eginez gero, gure burua juzkatzen dugu. Eta ez behin. Behin eta berriz baizik. Etengabe gogoratzen dugu egin genuena, pentsatu genuena, nahi genuena... eta juizio in-justu bat pairatzen du gure buruak: zintzoena, behin epaitzea litzateke-elako, eta ez egunero.

Gizartean onartua izateko, bakarrik ez geldit-zeko, ingurukoen babe-

sa sentitzeko egiten dugu hori. Beldurra baitugu. Zeren beldurra?

Heriotzarena? Ez! Bizitzeari diogu beldurra. Norberak benetan nahi duen bizitza egiteari. Horrela, egunen batean nahi dugun bizitza proiektua gauzatuko dugulakoan. Baina, noiz arte horrela? Noiz arte bizi naiteke ni, benetan ni izan gabe?

Ausardia eskatu diot Olentzerori, naizena izaten hasteko ausardia. Egu-berri on!



**IMANOL ARTOLA
ARRETXE**
FILOSOFOA ETA
ANTZETZLEA

**Noiz arte bizi
naiteke ni,
benetan ni izan gabe?**

EGURALDIA



EGUNA

San Tomas egunean ere oso antzeko eguraldia. Zeruan goi-hodei asko agertuko da, baina ez dute bestelako ondorioz ekarriko eta giro lasaia izango dugu egun osoan zehar. Haizeak hegotik jotzen jarraituko du, goizean bizi xamar eta arratsaldean ahu-lago eta tenperatura gradu pare bat igoko denez, giro nahiko goxoa izango da. Maxi-moek eguneko erdiko orduetan 14-16 gradutan joko dute goia.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Oso antzeko giroa, baina epelago. Zeruan goi-hodei ugariarekin jarraituko dugu, baina inolako ondorioz ez dute ekarriko. Soilik zeruari kolore zurixka emango diote. Hego-haizea ibiliko da beste behin eta tenperaturak beste pare bat gradu igo eta balio goxoetan geratuko dira, eguneko erdiko orduetan 16-18 gradutan joaz goia.

IGANDEA

Larunbataren kalko bat izango da. Zeruan goi-hodeiak nagusituko dira, baina beste behin ez dute inolako ondorioz ekarriko eta giro atseginaz gozatu ahaliko da. Haizeak hegotik jotzen jarraituko du eta tenperaturak altuak izaten jarraituko dute urte sasoi honetarako, eguneko erdiko orduetan berriz ere 16-18 graduak harrapatuz, baztertu gabe txokoren batean goraxeago geratzea ere.

OSTIRALA
21



IGANDEA
23



LARUNBATA
22



ASTELEHENA
24



**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ZORION AGURRAK



Zorionak

Ebarista Arrate (Lizartza). Urte Askotan! Gaur 88 urte bete dituzu, Santomasek ere oparia ekartzen du gure etxera eta beste bat eskatuko diogu. Muxu asko etxekoan partetik.

FARMAZIAK



ABENDUAK 21, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. Etxebeste, J. M. Gernikako
Arbolaren lorategiak, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.

ABENDUAK 22, LARUNBATA IBARRA

Egunekoa. Lejeune, L.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefonoa: 943 67 32 74.

ABENDUAK 23, IGANDEA TOLOSA

Egunekoa. Olarreaga, M.
Martin J. Iraola etorbidea, 10.
Telefonoa: 943 67 24 38.

ABENDUAK 24, ASTELEHENA TOLOSA

Egunekoa. Bronte, C.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

ABENDUAK 25, ASTEARTEA TOLOSA

Egunekoa. Olarreaga, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 01 28.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza.

Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpena, solasaldi politikoa Iñaki Azaldegi eta Juan Inazio Hartsuagarekin, azken ostiraleko tartea, Tolomendiren tartea eta telebista eta zinema gomendioak Alain Rekondorekin.

11:00. Hamaiketakoa. Ibarraldeko berriak.

12:00. Entzuteko jaioak musika saioa.

16:00. Zebrabidea.

18:00. Goizeko saioen onena.

LARUNBATA

11:00. Trikiti musika.

14:00. (H)ari naizela. Imanol Artola *felix*-ek gidatutako bertso saioa.

16:00. Entzuteko jaioak musika saioa.

17:00. Kokondo Oskar Tenarekin.

18:00. Entzuteko jaioak musika saioa.

IGANDEA

10:00. Asteko onena.

16:00. Entzuteko jaioak musika saioa.

17:00. Kokondo Oskar Tenarekin.

18:00. Entzuteko jaioak musika saioa.

ASTELEHENA

Egun osoan. Egun osoan euskal musika.

107.6 fm
www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

16:30. 1,2,3 Hemen da Miru.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

22:00. Platopic.

22:30. 28Klip.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

PROBA EZAZU KORTEKO

TURROI TRADIZIONALA

RAFA GORROTXATEGIEN
ERARA EGINDA



RAFA
GORRO
TXATEGI
1680

Tolosan salgai:
Obradorea: Usabal Poligonoa, 14
Denda: Solana Kalea, 1

943 89 03 06

www.rafagorrotxategi.eus

Berezi

NEURRI BEREZIAK

Gazte eta emakumeentzako moda

44-64
neurriak

www.berezitallasespeciales.com



Errementari kalea, 3 , Tolosa / Tel.: 943 674 965

berezitallasespeciales 

bertso jaialdia
2019

Ataria

Sarrerak Atarikideentzat 10€

Zure sarrerak hartzeko Atariaren bulegora etorri, gehienez bi sarrera bakoitzeko:

Abenduak 17, 18, 19 eta 20an
12:00etatik 19:00etara.

Abenduak 21 eta 27an
09:00etatik 13:00etara.

San Esteban 20, Tolosa

Urtarrilak 19,
larunbata, 19:00etan
Tolosako Leidor antzokian



Maiálen
Lujanbio



Andoni
Egaña



Amets
Arzallus



Oihana
Iguaran



Nerea
Ibarzabal



Haritz
Mujika



Gai jartzailea
Amaia
Agirre



Antolatzailea



tolosa



galtzaundi

Babeslea



TOLOSA

Laguntzaileak



Lanku



Atarikide ez direnentzat sarrerak urtarriletik aurrera